




Proiektu hau aurrera eramateko, zenbait elkarterekin bat egin dezakegula pentsatu dugu. Planteatu dugun beste puntuetako bat, elkarreek gure proiektua ikusgai egitea litzateke. Horretarako, zenbait eskola alternatiboz informatu gara. Esaterako, Mara mara, Kortiñe, Umerri eskola eta Izarrak elkarteak izango lirateke gure bazkideak.

| ALIATUAK       | IZENA  | DESKRIBAPENA   | HARREMANA  |
|----------------|--|--|--|
| ELKARTEAK      | <b>Mara-mara</b><br>                | <p>Zentzuzko espazio eta tailer libreak jartzen dituzte haurren eskura, modu integral eta osasungarrian garatu ahal izateko, autonomia, sormena, autokontzientzia, lankidetzaren edo jakin-mina garatzen lagunduz.</p> <p>Hainbat dinamika egiteko elkarrekin aliatu gitezke, Sopelanan edo Gernikan.</p>                            | Gure dinamikak osatu ahal izateko, gehigarri bat.  |
|                | <b>Kortiñe</b><br>                | <p>Umeentzako giroa bermatzen dute, naturarekin harreman zuzenean jarritz.</p>   | Naturarekin dinamikak egiterakoan harremanetan jarri eta biok bat gure erabiltzaileen hezkuntza bermatu. |
|                | <b>Umerri</b><br>                 | <p>Umeentzako giroa autonomia maila garatuz ematen dute. Lankidetzaren, proiektuak, bidaiak, txangoak... eginez bateratu gaitzke.</p>  | Gure dinamikak osatu ahal izateko zenbait ideia eta espazio eskaini ahal dizkigute.                      |
| HORNITZAIL EAK | <b>San Isidro kooperatiba</b><br> | <p>Kooperatiba honetan hainbat gauzetan egiten dute lan (landatzen, lorategietan, animaliekin, ehungintzan, burdinerian eta tresnerian). Kooperatiba honetan parte hartzeko, lehendik bezeroa egitea beharrezkoa da materiala erosteko. Honen ondorioz, materiala askoz merkeagoak dira eta horrela hainbat diru aurrezten dugu.</p> | Kooperatiba honek, batez ere animalientzako zein landa- eremurako beharrezko guztia eskainiko digu.      |

|  |  |  |   |
|--|--|--|---|
|  | <p><b>Mungiaiko Garaia kooperatiba</b></p>  | <p>Enpresa honek bertako barazkiak saltzen ditu eta honen engaiamendua; betiko zaporeen benetakotasuna berreskuratzea denboraldi bakoitzean, hau da, ortutik dendara 0km. Honen ondorioz, honen kooperatibatik janaria erostea da gure helburua eta nekazaritza sektoreari bultzatzea eta ez beste enpresa handiei (adbz: Mercadona, Eroski, Dia, BM...)</p> | <p>Enpresa honi esker, gure baratzako elikagai guztietatik etekina ateratzen lagunduko digu.</p>            |
|  | <p><b>Arratzuko Kiwilur S.L</b></p>         | <p>Enpresa hau, proiektu honetan parte hartzen duen pertsona baten aitarena da. Honek izugarrizko aukera ematen digu guk hazitako garunetik etekin bat atera ahal izateko. Izan ere, enpresa honek Garaia kooperatibarekin harreman oso estua du, San Isidro kooperatiban bezela.</p>  | <p>Enpresa honek lehen bultzada ematen lagunduko digu gure gidaria izanik.</p>                              |
|  | <p><b>Arratzuko albaitaria</b></p>        | <p>Arratzu nahiko herri txikia da. Honek, abantaila bat dakarkigu albaitariarekiko. Denok ezagutzeaz gain, bere eginkizuna ongi egiten duela bermatuta dugu.</p>   | <p>Animaliren bat gaixorik jarriz gero, edota zerbait beharrez gero, pertsona hurbil bat dugu inguruan.</p> |

Eskola alternatibo hauek gure proiektua onetsiz gero, beraien ikasleak gure eskolara gonbidatuko genituzke egun pasa bat egitera. Egun horretan zehar beraien egoera eta beharrezanetara egokitutako hainbat jarduera eta ekintza egingo genituzke. Era horretara, haurrak zerbait berria barneratu dutela sentitzeaz gain errealizatuak sentituko dira, praktikan jarri ditzaketen kontzeptu berriak ezagutuko dituztelako.

Gainera, erabiliko dugun materiala elkarbanatu dezakegu hainbat gastu murriztuz. Ideia honekin, aliatuekin ekintza berdinak edo antzekoak egin ditzakegu eta materiala berrerabiliko genuke. Honek gure arteko bizikidetzaz gauzatzera bultzatuko luke.